

Hitzaurrea



dazkena duela gutxi joan da, eta negua etorri. Azken horrekin *Behinola* aldizkariaren beste zenbaki bat heldu da gure plazara.

Hitz eta Pitz atalean VIRGINIA IMAZ, PELLO AÑORGA, JOSE MARI CARRERE ETA MAITE FRANKO ipuin-kontaliarien iritziak bildu ditugu, eta bertan jasotzen dira haien kezka, ikuspuntuak... ipuin-kontagintzaren inguruan.

Hitzontzian MAYI ARIZTIAREN *Hartzkume* ipuina irakurtzeko aukera zoragarria izango dugu. PATXI ZUBIZARRETA moldatu du ipuina.

*Hizpide*n ANTTON IRUSTAK bere ipuingintzaren karrera luze eta oparoak ekarri dizkion hausnarketa oso interesgarriak bildu ditu guretzat guztiontzat. Aldi berean, KOLDO AMESTOY ipuin-kontalari ezagunak dekalogo bat prestatu du ipuin bat ongi kontatzeko kontutan izan beharko genituzkeen hamar gomendioekin.

Hitzorduan IMANOL MERCEROK Galtzagorri Elkarteak uztailaren 26, 27 eta 28an Donostiako Miramar Jauregian antolatutako «Irakurzaletasuna sustatuz: Haur eta Gazteentzako Liburuen hautapena eta balorazioa» izeneko mintegian parte hartu zuen, eta hitzordu honetan jaso du bertan bizitakoa. Mintegia EHUko Udako Ikastaroen baitan burutu zen.

Erreseinen tartea *Hitz beste* atalean aurkituko dugu, aldiro bezala, liburuen gaineko komentario zorrotz eta zuzenekin.

Hitzatzea Euskal Herriko Ipuin-kontalarien Elkarteak burutu du. Bertan, sorreraz, erronkez... mintzatuko zaizkigu egileak. Gure aldetik, animatu nahi ditugu jarrai dezaten lanean eta Euskal Herria ipuinekin kolorez margotzen.

Gure esker onenak MANU ORTEGARI bere ilustrazio bikainekin *Behinola* hau gozatzeagatik.

Hemendik, zorion beroenak PATXI ZUBIZARRETAri *Xia Tenzinen bidaia miresgarria* liburuari esker (Ibaizabal, 2009; 20. *Behinola*, 56. orria) 2010.eko Haur eta Gazte-Literatur Euskadi saria berriki irabazi baitu. Modu berean, zorion zintzoenak gure lehenbiziko *Behinola* ilustratu zuen JOKIN MITXELENARENTZAT 2010.eko Ilustrazio Euskadi saria eskuratu baitu, *Ipuin-kontalariaren lapikoa* (Aizkorri, 2009; 20. *Behinola*, 49. orria) lanarekin.

Azkenik, *Behinola* aldizkariak jakinarazi nahi du 21. zenbakiaren azaleko irudia Donostia Kulturako Liburutegi Zerbitzuak argitaratu zuela 2010.eko Liburuaren Eguneko orri-markagailuan.